


Itzulpenak eta lankidetzak




Ikasleen idazkerari erantzuteko teknikak*

Ann Raimés

Idazmena lantzen denean, ikasleen idazlanei erantzutea prozesuaren parte garrantzitsua da. Lan honek, ordea, ez du izan behar azken betebeharrak neketsua irakaslearentzat, ezta ere eginkizun aspergarria ikasleentzat. Guztiz alderan-

tziz, sail honek materialen bilaketak eta ikasgaien prestakuntzak bezain garrantzitsu izan behar du.

Gehienetan, idazprozesuak honako etapa hauek ditu:



Era honetan, irakasleak idazlanari buruz esaten duenak ez du inolako eraginik lanaren edukin, tankera edo zehaztasunean. Irakasleak lan egin du, baina probetxurik gabe! Lan alferria izan da. Goian aipatutako prozesuan, irakasleak soilik lan bukatuari erantzuten dio. Irakasleak idazlana kontuan hartzen eta ebaluatzen du, baina eraginik gabe, ordurako prozesua amaituta bait dago.

Idazlana bukatu eta gero bakarrik ikusten baldin badugu, honako hau besterik ez dezakegu egin:

1. Idazleari nota eman (7, 8, 9, etab.).
2. Oharrak idatzi (*oso ondo, hobea, gotu egin behar duzu, baldarra*).
3. Akatsak zuzendu.

Guk geuk hori dena alferrikako lana dela somatzen badugu, zer pentsatuko du idazlanean gogor lan egin zuen ikasleak? Denbora luzetxoa iragan du hitzak hiztegian bilatzen, lana irakurtzen eta berrirakurtzen, zuzenketak egiten... Orduan, irakaslearengandik idazlana bueltan jaso eta honako hau ikusten du:

* Ingelesez «*Techniques in responding to students' writing*», Ann Raimés-en *Techniques in teaching writing* liburuan argitaratua. © 1983 Oxford University Press, Inc. Beraien baimenez itzulua eta berrargitaratua.



Nire familia handia da. Sei pertsonak bizi gara elkar etxean. Bakoitzari gauza bat gustatzen diot hartseden hartzeko. Ez digu gustatzen berdina eta haserretzen didate asko.

Adibidez, nire arreba gazteago a musika txina maitatzen du. Hori molestatzen dit zergatik noiz etxean dago musika jartzen du beti. Zergatik ni eta hura gela berdina bizi dugu eta nik ez dut ahal ikastea musika horrekin. Horregatik burukatzen dugu.

Baina gehiago molestatzen didana goizean musika rocken disko batekin esnatzea da. Hori erotzen dit Egun dena gaizki sentitzen naiz. Hori da nire anaiari molatzen diola.

Eta ikasleak zer egingo du orain? Noski, askotan zera: pixkat haserretu, papeira gorde edo bota, eta ea hurrengo batean marka gorri gutxiago jasotzen duen!

Baina badira bide alternatiboak idazlanak zuzentzeko. Irakasleak idazprozesuaren uneetan eskua sar dezake, editore eta irakurle lagunkor bezala. Gure idazprozesua honelakoa izango litzateke:



Honelako prozesu batek ariketa guztiz aldatzen du. Honela ikasleak ez du irakasleak zer nahi duen asmatu behar. Ikasleak ez du irakaslearentzat idazten. Guztiz alderantziz, ikasleak eta irakasleak elkarrekin lan egiten dute. Idazlea eta irakurlea harreman estuetan daude. Modu honetan, idaztea ez da bakarrik hizkuntz ariketa bat izango; irakasleak *ederki* edo *gaizki* markatzen duen zer-

bait. Idaztea etengabeko aurkikuntz prozesu bihurtzen da.

Irakasleak ez du idazlana produktu bukatutzat hartu behar. Idazlana ikaslea eratzen eta sortzen ari den hizkuntz gaia da. Lehen emandako idazlanerako (familiari buruzkoa) ondoko haxe dateke erantzun egokia (lehen behin-behineko lantzat hartuta):

Zure etxeko bi pertsonak egiten dutena esan diguzu. Zer egiten dute besteek? Irakur ezazu zeure lana ozenki. Esaldi batzuen esangura, zure ustez, oso argi ez badago, saia zaitez berridazten. Saia zaitez 3., 4. eta 8. esaldien ideiak sinplekiago esaten. Kontuz nor-nori-nork eta nor-nori aditz formekin!

Idazprozesuaren une desberdinetan erabiltzeko teknika espezifiko batzuk ikusi baino lehen, ikus ditzagun irakasleak beti gogoan hartu behar dituen printzipio orokorrak. Hona hemen bost oinarritzko printzipio edo agindu:

1. Ez ezazu lapitza har ikaslearen lana jaso orduko. Deus idatzi baino lehen, lan osoa irakur ezazu. Harrigarria bada ere, oso zail da irakasle askorentzat ikaslearen lana eta lapitza batera ez hartzea!

2. Bila itzazu bai alderdi makalak, baita zuzenak ere. Esan iezaiozu ikasleari zeintzu diren bere ahalmenak.

3. Marka berezirik erabiltzen baldin baduzu (*ort*, *adtz*, *etab.*), ikasleek ondo ezagutu behar dituzte marka guztiak. Eman iezaiezu ikasleei ere marka hauek erabiltzeko aukera.

4. Erabaki ezazu akatsei buruz zer egin nahi duzun: akatsak zuzendu ala markatu bakarrik; mota bateko akatsak bakarrik markatuko dituzun edo klasean ikusitakoak, edo denak. Era berean, gramatikazko akatsei zer nolako garrantzia eman ere erabaki behar duzu. Hau guztiau erabaki eta gero, azal iezaiezu ikasleei.

5. Gogoan hartu zure eginkizun nagusia ez dela idazlanaren kalitatea eba-

luatzea, baizik eta ikasleari laguntza ematea (irakasle bazara eta ez epaile huts). Galde iezaiozu zeure buruari zer egin dezakeen ikasleak idazlana hobetzeko: zer da idazlan honek gehien behar duena?

Oinarritzko agindu hauek gogoan harturik, ikus ditzagun orain ikasleen idazkerari erantzuteko irakaslearen esku dauden zenbait teknika.

OHAR IDATZIAK

Eragin handiagoa izateko, lanari buruzko galderak egin behar ditugu, edo ideiak parafrasiatu, edo aholkuak eman, eta ez bakarrik «ederki» edo «ez hain ongi» esan. Beren lehen hizkuntzan idazten dutenei buruz esana dago beren idazkera askoz gehiago hobeagotuko dutela ondo egiten dutena aintzakotzat hartzen eta laudatzen badugu, gaizki egindakoa zuzentzen arituz baino. Eta horixe bera dagokie bigarren hizkuntzako ikasleei ere. Lehendabizi, idazlan osoa irakurri behar dugu eta ondo dagoena aipatu (h.d., ondo dagoen edozein gauza: antolakuntza, puntuazioa, ideiak...). Ondo egina laudatu ondoren, lana hobeagotzeko zer egin dezakeen ja-

kin behar du idazleak. «Berridatz» esaten badiogu, ez diogu deus esaten. Iradokizun eta aholku zehatzak eman behar dizkiogu. Ikasleak pausuz pausu jarraitzeko moduko oharra behar ditu. Galderek ere badute beren lekua, guk eman gabe ikasleak beste aukerak edo bideak kontsidera ditzan.

Adibideak

1. Akats guztiak markatzeko eta azaltzeko denbora asko behar duzu. Datorren zatian aditz laguntzailea, estiloa eta ortografi markak zuzen edota azal ditzakegu:

Zortzietan jeiki naiz. Horduan gosaria jan naiz. Gosarian arraultze bat ogiarekin jan dut. Orduan eskolara joan naiz.

Zati hau ikasleari laguntzeko ideia baikor batzuk emanez komenta dezakegu. Honela:

Dena oso argi eta garbi esan duzu. Puntuazioa ederki dago. Zerrenda bat eman diguzu. Saia zaitez 2. eta 3. esaldiak lotzen. *Jan naiz* eta *jan dut* erabili dituzu. Biak ongi al daude? Baita, *horduan* ala *orduan*? Bi eratan ote?

Ikastalde haundia badugu eta gauzak laburki esan behar baditugu, gauza bera honela labur dezakegu:

Oso argi. Puntuazio ona. 2. eta 3. esaldiak lotu. *Jan naiz* ala *jan dut*? *Horduan* ala *orduan*?

Klasean horretarako astirik badugu, ikasle bakoitzari azalpen gehiago eman diezaiokegu.

2. Galderek aukera ederra ematen dute edukina edo antolakuntza argi ez dagoela ikasleari aditzera emateko. Galderek egiten ditugunean, ikasleak ulertzen du zerbait aldatu behar duela, berridatz behar duela, zeharka esaten badiogu ere. Hona adibide bat.

Txiki-txikitandik magiako jokoak misteriosuak aurkitu ditut. Honetan nere iritziz denetan onena Harry Houdini zen. Handiena zen eta haren magia beti izango da handiena. Egun batean magiagatik topatuko banuke, nere misterio denak erantzun bat izango dituzte. Agian nere adizkideak arritzeko truko bat erakutsiko dit. Sentitzen dut ni izango naizela berarekin hilobira eraman zuen sekretua aurkituko detana.

Oharrak:

Houdini-ri buruz esan duzuna guztiz interesgarria da. Orain oso interesatuta nago eta gehiago jakin nahiko nuke. Zer nolako gauza mirezgarriak egin zituen? Zer da aipatzen duzun misterio hori? Eta hilobira eraman zuen sekretua? Jakin nahi dut, benetan.

Kasu honetan, ikaslea bibliotekara joan zen gehiago ikasteko eta idazlana berregituratu egin zuen. Bigarren idazlana askoz hobeagoa zen. Irakasleak aipatu ez zituen akats asko ere zuzendu zituen.

IDAZLANARI BURUZ MINTZATZEN

Ikasleari lanaren berridazketan laguntzeko biderik onenetako bat berarekin lana eztabaidatzea da. Ikasle bakoitzarekin hitz egiteko denbora asko behar dugu eta egoera askotan ez dugu posible izango. Hala ere, elkarrizketa labur bat oso onuragarria izan daiteke. Ikasleekin hitz egin dezakegu klasea hasi baino lehen, edo klasea bukatu eta gero, edo klasean, beste ikasleak lanean ari diren bitartean.

Ikasleak idazlanean esan nahi zuena benetan jakiteko, askotan elkarriketa da bide bakarra. Irakasle batzuek kase-grabagailua erabiltzen dute idazlanari buruzko oharrak emateko; baina honela bidebateko komunikazioa bakarrik dugu. Ez dugu benetako komunikaziorik. Elkarriketan benetako eztabaida izan dezakegu. Horregatik dira hain baliagarriak elkarriketak.

Adibideak

1. Batzuetan gertatzen da zati bat hain iluna dela ezen ez bait dugu ulertzen ikasleak esan nahi zuena. Kasu horietan «?» idazteak ez du inolako baliorik ikaslearentzat. Guk geuk zatia berri-dazten badugu ere, ez dugu ikasleari laguntzen; batez ere guk ulertu duguna ez bada ikasleak esan nahi zuena.

Behin batean, ikasle bakoitzak beste ikasle batekin hitz egin behar zuen bere bizitzan eta hezieran eragin handia izan zuen pertsonaren bati buruz. Jasotako informazioaz idazlan bat egin behar zuten. Idazlanen bat guztiz ulertezina zen. Irakasleak ezin zuen ezer esan edukinari buruz, ez bait zuen piperrik ulertu. Horregatik, ikaslearekin mintzatu zen horretaz. Ikasleak azaldu zuen, beste ikaslearekin hitz egiten ari zenean, oso urdu-ri zegoela; beste pertsona baten bizitza pribatuaz mintzatzeak kezkatu egiten bait zuen. Hala ere, gertatu zenari buruz oso era argian hitz egin zuen irakaslearekin. Bazeuzkan ideia argiak buruan, baina ez zuen uste idatziz dena argi esateko eskubidea zuenik. Hizkera ilunaz esanahia izkutatu nahi zuen. Ikasleak esan nahi zuena jakiteko bide bakarra idazlanaz mintzatzea zen. Gertatzen zena jakin eta gero, irakasleak laguntza eman ahal izan zion.

2. Elkarriketa indibidualean, irakasleak ikasleari eska diezaioke bere lana ozenki irakur dezala. Sarri askotan, ikasleak okerrak, esaldi ilun eta bukatu ga-beak aurkituko ditu orduan.

3. Irakasle batzuek, ikasleekin solasean ari direnean, ikasleak esaten duena idatzi egiten dute. Ikasleek askotan uste

izaten dute ez dutela ezer gaiaz esateko eta gero ikusten dute minutu labur batzuetan gauza asko esan dutela horretaz. Irakasleak idatzi zuena oinarritzat har dezake ikasleak gaia gehiago lantzeko.

GALDERA-ZERRENDAK

Bai irakasleak eta bai ikasleek zerrenda bat erabil dezakete zuzenketak egiteko. Egin ditzakegu gramatikazko zerrendak, klasean ikusitako puntu gramatikalak bilduz; edo idazkera formalari buruzko galderak (adibidez, honako galderekin: «Idazlanak ba al du izenbururik?», «parrafo guztien lehenengo leerroaren ezkerreko bazterra zabalagoa al da?» etab.). Ikasleari ere galdera-zerrendaren kopia bat eman dakioke idazlanaren tankera eta edukina araka dezan. Ikasleak ideien antolakuntza ikus dezan edota gramatikazko puntu batzuk arretaz ikus ditzan, agindu-zerrenda bat eman dakioke. Hona adibide pare bat: «Azpimarra ezazu parrafo bakoitzaren ideia nagusia», «azpimarra itzazu ize-nordekoak eta beren antezedenteeekin pareka itzazu».

Adibideak

1. Ikasleari galdera-zerrenda bat eman dakioke, idazlana berrikus dezan. Gero irakasleak zerrenda bera erabiliko du lana ebaluatzeko. Helburu konkretuak nolakoak, halakoak galdera-zerrendak ere. Hona hemen adibide gisa zerrenda bat:

- Zein perpausok adierazten du ideia nagusia?
 - Zein perpausetan garatzen da ideia nagusi hori?
 - Aditz-aldi guztiak ondo al daude?
 - Aditz-jokoa ondo erabilia al da?
- Edo sinplekiago:
- Ideia nagusia.
 - Garapena.
 - Aditz-aldia.
 - Aditz-jokoa.

Zerrenda honen bidez gramatika eta idaz-tankera aztertzen ditugu, zorrotze-
gi izan gabe.

2. Galdera-zerrenda batez balia gaitzke klasean irakatsitakoaren erabilera aztertzeke. Ikasleak «+» marka jasoko du, puntu jakin bat ondo erabili badu. Ez dugu emango marka negatiborik. Zerrenda honek klasean ikusitakoaren syllabusa isladatzen du eta astez aste handituz joanen da.

BESTE IKASLEEN IDAZKETEI IKASLEEN ERANTZUNAK

Galdera-zerrendak oso erabilgarriak dira, ikasleek ikaskideen lana irakur eta ebalua dezaten. Anitzetan, irakasleak ikasleek asko idatz dezaten nahi du, baina ezin du guztia irakurri eta markatu. Ikasleei zer egin behar duten esaten badiegu, laguntza handia eman diezaiekete beren ikaskideei. Oharrak eta aginduak beharrezkoak dira, hala ere. Bestela, dena *ederki* edo dena *gaizki* markatuko dute. Baina, argibide eta azalpen zehatzak ematen badizkiegu, lan baliagarria egin dezakete besteen idazketak irakurtzen.

Adibideak

1. Talde txikietan, launakako edo bostnakakoak, ikasle bakoitzak taldeko besteei bere idazlana irakurtzen die. Irakurtzerakoan, askotan akats, oker eta esaldi ilunak aurkituko dituzte.

2. Ikasleak talde txikietan daude, hiruak edo launak. Taldeek elkar trukatzen dituzte beren behin-behineko lanak. Ikasle bakoitzak irakurtzen dituen lanen eskema egiten du:

Idea nagusia: (perpauza kopiatzen du).

Garapena: 1.

2., etab.

Talde bakoitzeko ikasleek beren eske-
mak konparatzen dituzte. Orduan, lanaren idazleari ematen dizkiote eskema

denak. Idazleak ikusten du orain irakurleek bere lanaz zer pentsatzen duten.

3. Ikastalde osoak idazlan bat azter dezake (arbelean idatzita, projektore bidez edo multikopiaz). Denen artean idazlana eztabaidatuko dute: Zeintzuk dira puntu onak? Zein da idazlearen ideia nagusia? Ba al dago ideia orokor bat? Zer-nolako ebidentzia aurkezten du idazleak bere jeneralizazioa mantentzeko?

Ikasleek gramatika azter dezakete modu honetan ere, ohar eta argibide zehatzak baldin badauzkate. Adibideak:

— Idatz itzazu aditz guztiak.

— Orain idatz itzazu aditz bakoitzaren subjeto eta osagarriak.

— Azter ezazu aditzen komunztadura.

AUTO-ZUZENKETA

Ikasleek beren idazkera kritikoki aztertzen ikasi behar dute, idazkera hobegotzeko era ikasi. Gauzak era argi, logiko eta zehatzean esaten ikasi behar dute, beren akatsak aurkitzeko eta zuzentzeko trebetasuna erdietsi.

Badira zenbait teknika testuak kritikoki aztertzeko. Ikasleak berak aplikatu diezazkioke teknika hauek idazten duenari; baina unea egokia denean bakarrik. Hasiera batean, ideiak sortzen ari denean, ez du ikasleak bere trebetasun kritikoa gehiegi erabili behar. Ikasleak jakin behar du bere lana nola zuzen dezakeen eta gainera hori egiteko momentu egokia noiz den.

Adibideak

1. Ikasleek lehen behin-behineko lana idazten dutenean, adierazi nahi dituzten ideietan kontzentraturik egon behar dute. Esan iezaiezu ez kezkatzeko gramatikaz edo ortografiaraz. Hitz baten ortografia ez badakite, esan iezaiezu galdera-marka bat alboan ipin dezatela, gerrogo hitza hiztegian bilatzeko. Hitz bat ez badakite, beren lehen hizkuntzan idatz dezatela, eta gerorako utz dezate-

la. Jakin behar dute lehenengo idazketa lehen urratsa besterik ez dela eta inork ez duela pentsatzen akatsik gabekoa izan behar duenik. Une honetan, akatsak eta hutsegiteak onartu egin behar ditugu. Ideia batzuk idatzi eta gero, idazlana egitura eta berregitura dezake-te, gero eta zehaztasun gehiagoz idatziz.

2. Esan iezaiezu ikasleei behin-behineko idazketa bat egiteko, eta ondoren, egun batez edo, alde batera uzteko, berriro irakurri gabe. Egun hori iragan eta gero, irakur dezatela. Ikasle askok esaten dute hau egiten dutenean, falta diren hitzak, bukatu gabeko esaldiak, aldrebeskeriak, ortografi akatsak eta gramatikazko okerrak aurkitzen dituztela.

Irakasleak idazlanak jaso eta bi asteren buruan itzuliko dizkie ikasleei, markatu gabe. Orduan, ikasleak bere idazlana ikuspuntu berri batetik berrikusiko du, irakurlearen ikuspegitik, alegia. Irakasleak ez ditu lanak markatu, baina irakurri ditu eta problema-zerrenda bat egin du, ikasleek gehiago lan dezaketena.

3. Esan ikasleei lana lerroz lerro eta hitzez hitz irakurtzeko; beheko lerroak estaliz eta hitz bakoitza lapitzez seinaltatuz.

4. Irakats iezaiezu ikasleei hiztegia eta gramatika-liburua erabiltzen.

5. Astia eman ikasleei galdera-zerrendak erabiltzeko, idazlana ozenki irakurtzeko, eskema egiteko, gramatika-eskuburua ikusteko eta hiztegiak baliatzeko.

OKERRAK ZUZENDUZ

Artikulu honetan, azpimarratu dugu irakaslearen lana ez dela akatsak zuzentzea bakarrik. Hala ere, irakasle guztiek ondo dakite akatsak problema handia direla idazten irakasterakoan. Zer egin behar du irakasleak? Oker guztiak zuzendu? Askotan, horrek idazlana berriz idaztea esan nahiko luke. Zenbait akats bakarrik zuzendu? Zeintzu, ordea? Okerrak ez zuzendu, baina markatu, ikasleak zuzen ditzan? Baina, ikasleak okerrak zuzentzen baldin badaki, zerga-

tik hutsegin du lehen? Gramatikako akatsak alde batera utzi eta edukina eta erakuntza miatu? Baina orduan ikasleak ez ote du pentsatuko gramatika ederki dagoela, okerrak erroagotuz? Galdera guzti hauek garrantzi handikoak dira irakaslearentzat. Hemen akatsak zuzentzeko teknika batzuk aipatuko ditut.

Adibideak

1. Akats jakin batzuk bakarrik markatu; adibidez, klasean irakatsitako gramatikakoak. Kasu batean, esate baterako, lehen aldiaren edo baldintzaren erabilera azter dezakezu. Edo esanahia iluntzen duten okerrak bakarrik zuzendu. Adibide bat emateko, «English language use much people» esaldian («many people use the English language» esan beharrean), badira akats bat baino gehiago; alegia: *much*, *many* ordez, *the* artikulua falta da, baina esanahia iluntzen duen okerra hitzen ordenakoa da. Azken oker hau zuzendu behar dugu.

2. Okerrak kontuz mia itzazu. Akatsen arrazoiak aurkitzen saia zaitez. Adibidez, ingelesez *caught* (*caught* esan beharrean) edo espainolez *haci* (*hice* ordez) idazten duena, arau bat orokortzen ari da. Kasu honetan ikasleak araua (h.d., lehenaldiko morfologia orokorra) ezagutzen du, baina salbuespenak ikasi behar ditu. Okerren azterketak laguntzen digu syllabus planeatzeko. Adibide berarekin oraindik, gure hurrengo etxerako lana beste idazlan bat izan daiteke, baina lehenaldiko forma irregularrak erabiliz. Ikasleari esaten badiogu zergatik hutsegin duen, agian ez du berriro hutsegingo. Ikasleak ingelesez «I assist my gym class every day» («*I attend*» esan beharrean) idatzi badu, lagundu egingo diogu, oker hori espainolez *asistir* aditzak esangura hori duelako egin duela esaten badiogu.

3. Kontutan har ezazu ikasleak ondo idatzi duena. Sarritan, idazlan berean erabilera zuzenak eta okerrak aurkituko dituzu. Ikasleari esan behar diozu ezagun duela gramatikako puntuak badakizkiela, beste lekuetan ondo erabili bait du. Honela egin:

Mikelek asko irakurtzen du. Atzo hiru liburu irakurri zuen Mikel.

4. Kopia itzazu esaldi okerrak. Taldeak egin eta talde bakoitzari hiru esaldi eman, zuzentzeko edo hobeagotzeko. Gero ikastalde osoaren aurrean zuzenketak aurkeztu behar dituzte. Esaldien idazleek zuzenketak eta arrazoiak entzuten dituzte.

5. Zeinu-zerrenda bat egin ezazu okerrak markatzeko. Erabil ezazu ikasleei dena azaldu ondoren. Hona zeinu-zerrenda bat:

- ∨: hasi parrafo berri bat
- ort: ortografi akatsa
- mai: maiuskulak
- p: puntuazio-akatsa
- adtz: aditz-aldia edo aditz-jokoa gaizki dago
- ˘: hitzen ordena aldatu
- hzg: hiztegia gaizki erabilia (*gertatu/iragan*)
- hif: hitz honen forma gaizki dago (*garrantzi/garrantzitsu*)
- ˆ: letraren edo hitzen bat falta da
- gr: gramatikako akatsa (*ni egin dut*)
- EE: esaldiaren egitura gaizki dago etab.

Irakasleak akatsa azpimarra edo ingura dezake alboan zeinua idatziz ere.

6. Eman ezazu arrazoi bat ondo eta zehazki idazteko. Arrazoi on bat izan daiteke besteek idazlana irakurriko dutela. Eskolaren aldizkaria edo iragarpen-taula (edo ikasgelago hormak) leku aproposak dira idazlanak besteei ezagutertzeko.

7. Azken ohar bat: kezkatu egin behar duzu akatsez eta zuzenketaz eta ikasleei ere kezkatzeko esan behar diezu; baina hori ez dadila izan idazmena lantzearen ardatza. Bestela, perpausa bakarrik ikusiko duzu eta idazlanaren esanguraz eta edukinaz ahaztu egingo zara. Beti gogoan hartu behar duzu perpausak esangurak adierazteko erabil-

tzen ditugula, hitz egiten eta idazten dugunean. Eta hizkuntz irakaskuntzaren xedea esanguraren adierazpena da.

•ARIKETAK•

1. Har ezazu ikasle batek idatzi duen zati bat. Puntu onak bila itzazu. Hurrengo berridazketarako, zein da ikasleak egin behar duen aldakaketa nagusia? Ikasleak oraindik menperatu ez dituen gramatikako egiturak idatz itzazu, zerrenda batean. Konpara ezazu zeure zerrenda beste irakasleekin.

2. Aipatutako zatia markatu behar duzu, ikasleak gehiago lan dezan. Nola markatuko duzu? (Zeinuekin, akatsak azpimarratuz, azalpenekin?) Azal ezazu zergatik erabaki duzun modu batean edo bestean egitea.

3. Ikasle batek zurekin hitz egin nahi du eta bapatean hauxe galdetzen dizu: «Nire idazlana ona da?» Nola erantzun- go diozu? Elkarrizketa batean zer egin- go zenuke? Egin ezazu eskema bat.

4. Egin ezazu galdera-zerrenda bat, ikasleek idazlana berrikusterakoan erabil dezaten.

5. Erabaki ezazu akatsei buruz zer egingo duzun eta ikasleei horretaz zer esango diezun.

6. Artikulu honen lehen adibidezko zatia (familiar buruzkoa) irakur ezazu. Zer esango zenioke idazleari? Galdera-zerrenda egin ezazu.

7. Familiar buruzko zatian, aukera itzazu bi oker nagusi zuzentzeko. Zergatik aukeratu dituzu bi horiek? Eztabaida ezazu beste irakasleekin. Idatz itzazu ikasleak bi akats-mota hauek berriro ez egiteko egin ditzakeen ariketak.

Itzultzailea: J.I. Hualde

TECNICAS DE RESPUESTA A LOS ESCRITOS DE LOS ESTUDIANTES

La respuesta a los escritos de los estudiantes constituye un elemento primordial del proceso de enseñanza de la expresión escrita. Esta en modo alguno puede limitarse, como era lo habitual en muchas prácticas tradicionales, al momento final de una secuencia de aprendizaje. Finalizado un escrito poco importa lo que el profesor pueda decir acerca del mismo ya que su comentario en modo alguno puede influir sobre el contenido, la forma o su precisión. Es por ello que la eficacia de un método que limita la in-

tervención del profesor a juzgar y evaluar un escrito una vez finalizado el mismo resulta dudosa.

Raimes postula una metodología dinámica para la enseñanza de la expresión escrita, metodología de descubrimiento continuo a través de una interacción permanente entre lector-escritor. La autora señala una serie de técnicas que pueden permitir al profesor intervenir en los diversos momentos del proceso de escritura a fin de responder de modo adecuado a los escritos de los estudiantes.

TECHNIQUES OF GIVING FEEDBACK ON STUDENTS' WRITTEN WORK

Feedback on the written work of students constitutes a fundamental element in the process of teaching written expression. Consequently, it should in no way be limited to the final stage of a learning sequence as is customary in most traditional methods. Once a piece of written work is finished, it matters little what a teacher may say in its regard since whatever comments are made will have no influence over the content or form or the accuracy of expression. For this reason, the usefulness of a method

which restricts the teacher's contribution to judging and evaluating a finished piece of work is highly questionable.

Raimes postulates instead a dynamic approach to teaching writing skills—a methodology of continuous discovery through permanent interaction between reader and writer. The author shows how a series of techniques allows the teacher to intervene at different stages of the writing process in order to provide feedback to students at the appropriate moments.

TECHNIQUES DE REPONSE AUX TEXTES ECRITS DES ETUDIANTS

La réponse aux textes écrits des étudiants constitue un élément primordial du processus d'enseignement de l'expression écrite. Celle-ci ne peut être limitée au moment final d'une séquence d'apprentissage, comme cela avait lieu dans beaucoup de pratiques traditionnelles. Une fois que le texte écrit est fini, peu importe ce que le professeur puisse dire à son sujet, étant donné que son commentaire ne peut en aucun cas influencer le contenu, la forme ou sa précision. C'est pour cela que l'efficacité d'une méthode qui limite

l'intervention du professeur au jugement et à l'appréciation d'un texte écrit une fois terminé, est douteuse.

Raimes défend une méthodologie dynamique dans l'enseignement de l'expression écrite, méthodologie de découverte continue au moyen d'une interaction permanente entre le lecteur et l'écrivain. L'auteur indique une série de techniques qui permettent au professeur d'intervenir dans les divers moments du processus d'écriture, dans le but de répondre d'une façon adéquate aux écrits des étudiants.